De conformidad con lo dispuesto en la base específica 2.3., en caso de que el Organismo Autónomo pueda recabar directamente la documentación justificativa del conocimiento del euskera a la Administración correspondiente, se indicará a las personas aspirantes esta circunstancia, de modo que no tendrán que aportar dicha documentación.

*Sexta. Propuesta de Tribunal.*

El tribunal procederá a determinar la calificación de las personas aspirantes que hayan superado todos los ejercicios eliminatorios de la fase de oposición, en los términos de la base general 8.1.

En caso de empate en la calificación final, no será de aplicación el primer criterio previsto en la base general 8.1.

La relación de las calificaciones finales y la relación de personas aspirantes seleccionadas se harán públicas en los términos de la base general 8.7.

Si ninguna de las personas aspirantes presentadas superase las pruebas eliminatorias, o no se llegase a cubrir las plazas ofertadas con quienes superen las mismas, el tribunal declarará desiertas la plaza o plazas convocadas.

EK\CV GAO-I-2025-01930

*Zazpigarrena. Dokumentazioaren aurkezpena.*

Hautagaiek bigarren oinarrian aipatzen diren parte hartzeko eskakizunak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, bederatzigarren oinarri orokorrean jasotzen diren epeetan eta formetan.

*Zortzigarrena. Praktikak.*

Oinarri hauetan ezartzen diren parte hartzeko eskakizunak dokumentuen bidez egiaztatu ondoren, Epaimahaiak proposatzen dituen hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira, hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

Praktiketako funtzionarioek praktika aldia egingo dute. Aldi horrek, gehienez, 6 hilabete iraungo du eta hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan Gai edo Ez Gai kalifikazioa lortuko da, hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

Hautagaiak praktiketako aldia egiten ez badu, edota gainditzeko eskatzen den gutxieneko gaitasuna egiaztatzen ez badu, praktiketako funtzionario izateari utziko dio eta plaza berrian karrerako funtzionario izendatzeko izan ditzakeen eskubideak galduko ditu.

Praktika aldiaren garapena baloratzeko Batzorde Ebaluatzailea osatuko da.

Batzorde Ebaluatzaileak gutxienez 3 kide izango ditu, guztiak karrerako funtzionarioak.

*Bederatzigarrena. Behin betiko izendapena.*

Praktika aldia gainditu duten eta oinarri hauetako bigarren oinarrian jasotako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiak Donostiako Udaleko karrerako funtzionarioak izendatuko dira, Irakasle plazan, 10.4. oinarri orokorraren arabera.

*Hamargarrena. Aurka egiteak.*

Oinarri hauek nahiz deialdietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazioko egintzak aurkaratu egin ahal izango dituzte interesdunek, bi lege hauetan onartutako kasuetan eta moduan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean (2015eko urriaren 1ekoa) eta Administrazioarekiko Auzien Eskumena arautzen duen 29/1998 Legean (1998ko uztailaren 13koa).

*Xedapen gehigarri bakarra. Lan poltsak.*

Praktiketako funtzionarioen izendapena egiten den unean, eskumena duen udal organoak ebazpena egingo du, lan poltsa osatuz, oposizio-faseko ariketa baztertzaile guztiak gainditu duten baina deialdian eskainitako plaza kopurua gainditzeagatik izendatu ez diren pertsonen zerrendarekin.

Praktika aldia egin baina gainditu ez duten hautagaiek ez dute aipatutako lan-poltsa horretan sartzeko eskubiderik.

Poltsa izango da etorkizuneko aldi baterako estalduretarako oinarria. Lan-poltsako lehentasun-hurrenkera izangaiek oposizio-lehiaketan lortutako puntuazioaren arabera ezarriko da, eta 8.1 oinarri orokorrean ezarritakoa aplikatuko da berdinketa egonez gero.

Erakunde autonomoak lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko une bakoitzean onartuak dituen irizpideak aplikatuko dira.

*Séptima. Presentación de documentación.*

Las personas aspirantes deberán presentar la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de participación citados en la base segunda en los plazos y formas previstas en la base general novena.

*Octava. Prácticas.*

Acreditado documentalmente el cumplimiento de los requisitos de participación exigidos en las presentes bases, se nombrará funcionarias o funcionarios en prácticas a las persona aspirantes propuestas por el Tribunal, en los términos de la base general décima.

Las personas funcionarias en prácticas realizarán un periodo de prácticas que tendrá una duración, como máximo, de 6 meses y completará, como una fase más, el proceso selectivo. Este periodo se regirá por lo previsto en la base general décima y en él, cada persona aspirante será calificada como Apta o No Apta.

La no incorporación al periodo de prácticas, o la no acreditación de la aptitud mínima exigida para su superación, supondrá el cese como persona funcionaria en prácticas y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para el nombramiento como funcionario de carrera en la nueva plaza.

A fin de valorar el desarrollo del periodo de prácticas se constituirá una Comisión Evaluadora.

La Comisión Evaluadora estará compuesta por 3 personas, funcionarios o funcionarias de carrera.

*Novena. Nombramiento definitivo.*

Las personas seleccionadas que hayan superado el periodo de prácticas, y acreditado el cumplimiento de los requisitos previstos en la base segunda de las presentes bases, serán nombradas funcionarias de carrera del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián en la plaza de Profesor/a, conforme a lo dispuesto en la base general 10.4.

*Décima. Impugnación.*

Las presentes bases y los actos administrativos que se deriven de la convocatoria y de la actuación del Tribunal se podrán impugnar por las personas interesadas en los casos y en la forma que establecen la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

*Disposición adicional única. Bolsa de trabajo.*

En el momento en el que se realice el nombramiento de funcionaria o funcionario en prácticas, el órgano competente emitirá una resolución mediante la que se constituirá una bolsa de trabajo, con la lista de personas aspirantes que habiendo superado la fase de oposición, por exceder el número de plazas convocadas, no sean nombradas.

Las personas aspirantes que accedan al periodo de prácticas, pero no la superen, no tendrán derecho a formar parte de la citada bolsa.

La bolsa será la base para futuras coberturas temporales. El orden de prelación en la bolsa de trabajo será el establecido por el orden de puntuación obtenido por las personas aspirantes en el concurso-oposición, aplicándose lo establecido en la base general 8.1 en caso de empate.

Resultarán de aplicación los criterios que en materia de constitución y gestión de bolsas de trabajo se encuentren aprobados por el Organismo Autónomo en cada momento.

EK\CV GAO-I-2025-01930

1. ERANSKINA

IRAKASLEA

— *Lanpostua:* Irakaslea (Baxu Elektrikoa-Gitarra Elektrikoa).
*Lanpostuaren kodea:* 3240.
*Egoitza:* Atotxa.
*Hizkuntz eskakizuna:* C1/C1.
*Derrigortasun data:* iraungita (2009-07-31).
*Azpitaldea:* A2.
*Destino osagarria:* 20.
*Berariazko osagarria:* 20.558,92 €.

* Prestakuntza berezia.

Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, Interpretazio edo Pedagogia espezialitateetan. Irakaskuntza-espezialitatea: Baxu Elektrikoa.**

**Instrumentu eta kantu irakasleen titulazioak.

Titulua lortzeko ikasitako Instrumentua/ahotsa gaiak bat etorri beharko du titulazio-betekizunean jasotako irakaskuntza-espezialitatearekin.

Lanpostuen zerrenda honen ondorioetarako, honako titulazio hauekin ere beteko da baldintza:

1. Dagokion irakaskuntza-espezialitatearen interpretazioko edo pedagogiako goi-mailako titulua (631/2010 ED) (Meces 2).

2. Instrumentua, kantua, jazza edo kantuaren eta espezialitate instrumentalen pedagogiako Musikako goi-mailako titulua (617/1995 ED), dagokion irakaskuntza-espezialitatearena (Meces 3).

4. Irakasle-titulua dagokion irakaskuntza-espezialitatean (2618/1966 Dekretua) (Meces 2).

5. Dagokion irakaskuntza-espezialitateko goi-mailako irakaslearen titulua (2618/1966 Dekretua) (Meces 3).

6. Opera Abeslari Diploma (313/1970 Dekretua) (Meces 2).

7. Bakarlarientzako Espezializazioko Goi Mailako Diploma (313/1970 Dekretua) (Meces 3).

8. Aurreko planetako tituluak, irakasle-tituluaren baliokideak dena delako irakaskuntza-espezialitatean (2618/1966 Dekretua) (Meces 2).

9. Instrumentua edo kantua interpretazio unibertsitate gradu titulazioak, ED 631/2010 arauaren arabera oinarrizko prestakuntzako kredituak eta irakaskuntza-espezialitateko derrigorrezko ikasgaiak dituztenak (Meces 2).

* Postuaren oinarrizko eginkizuna.

Musikako eta dantzako eskolak prestatzea eta ematea Eskolan.

— Zeregin zehatzak:

Eskolak prestatzea, horretarako, beharrezkoak diren materialak hautatuz eta sortuz (fitxak, programazioak, talde eskolak, partiturak moldatzea, eta abar).

Irakasle klaustroetan, ebaluazio bileretan, departamentuko bileretan eta, haren irakaskuntza jarduera dela medio, deitzen zaion gainerako bileretan parte hartzea.

Ordenagailuak eta pedagogiako programa informatikoak erabiltzea (Band-in-a-Box, Finale, Cubase, eta abar), bai eta Open Office eta talde lanerako aplikazioak ere (Lotus Notes).

Bere lanari eta espezialitateari buruz eskatzen zaizkion txosten guztiak prestatzea.

Bere espezialitateko eskolak ematea eta antolatzea eta, beharrezkoa izanez gero, jarduera osagarriak egitea.

Musika tresnen taldeen eskolak ematea eta antolatzea; horretarako, taldeok zuzendu beharko ditu, beharrezko errepertorio-

ANEXO 1

PROFESOR/A

— *Puesto:* Profesor/a (Bajo Eléctrico-Guitarra Eléctrica).
*Código del puesto:* 3240.
*Sede:* Atotxa.
*Perfil lingüístico:* C1/C1.
*Fecha de preceptividad:* vencida (31-07-2009).
*Subgrupo:* A2.
*Complemento de destino:* 20.
*Complemento específico:* 20.558,92 €.

* Formación específica.

Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música, especialidades Interpretación o Pedagogía. Especialidad docente: Bajo Eléctrico.**

**Titulaciones profesorado de instrumento y canto.

La materia Instrumento/voz cursada para la obtención del título requerido deberá corresponder con la especialidad docente recogida en el requisito de titulación.

A los efectos de esta RPT, se cumplirá el requisito también con las siguientes titulaciones:

1. Título Superior en Interpretación o Pedagogía (RD 631/2010) de la especialidad docente correspondiente (Meces 2).

2. Título Superior de Música: Instrumento, canto, Jazz o Pedagogía del canto y de las especialidades instrumentales (RD 617/1995) de la especialidad docente correspondiente (Meces 3).

3. Título de Profesor en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) (Meces 2).

4. Título de Profesor Superior en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) (Meces 3).

5. Diploma de Cantante de Ópera (Decreto 313/1970) (Meces 2).

6. Diploma Superior de Especialización para solistas (Decreto 313/1970) (Meces 3).

7. Títulos de planes anteriores equivalentes al Título de Profesor en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) (Meces 2).

8. Titulaciones universitarias de grado en interpretación de instrumento o canto, que tengan los créditos de formación básica y materias obligatorias de la especialidad docente según RD 631/2010 (Meces 2).

* Función básica del puesto.

Preparación e impartición de clases de Música en la Escuela.

— Tareas específicas:

Preparar las clases, seleccionando y elaborando para ello cuantos materiales le sea necesario (fichas, programaciones, clases colectivas, arreglos de partituras, etc.).

Concurrir a los Claustros de Profesores, sesiones de evaluación, reuniones de departamentos y a cuantas reuniones sea convocado en relación con su tarea docente.

Utilización de ordenadores y programas informáticos pedagógicos (Band-in-a-Box, Finale, Cubase, etc.), así como Open Office, así como aplicaciones de trabajo en grupo (Lotus Notes).

Confeccionar cuantos informes le sean requeridos, con relación a su trabajo y su especialidad.

Impartir y organizar las clases de su especialidad, así como complementarias si ello fuera necesario.

Impartir y organizar las clases de conjuntos, dirigiéndolos, seleccionando el repertorio necesario y dinamizándolos de manera


EK\CV GAO-I-2025-01930

rioa hautatu, eta taldeak talde bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz dinamizatu (adina, interesak, maila, eta abar), bai eskolan bai eskolaz kanpoko emanaldietan.

Haren karguko materiala zaintzea, eta dagozkion gestioak egitea, irakasleek eta ikasleek material hori eskolako araudiarekin bat erabil dezaten ahalbidetzeko.

Kontzertu pedagogikoetan parte hartzea, hala eskatzen zaionean.

Karguak onartzea zentroko araudiarekin bat hala hautatzen edo izendatzen dutenean.

Gainera, lanpostua eskuratzeko eskaturiko mailarekin bat ematen dizkioten bestelako eginkizunak ere betetzea, lehen aipatutakoez gain.

2. ERANSKINA

GAITEGI ESPEZIFIKOA

1. 2/2006 Lege Organikoa, hezkuntzari buruzkoa.
— Hasierako titulua, II. kapitulua.
— I. titulua, VI. kapitulua.

2. 64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolena.
— I. kapitulua: xedapen orokorrak.
— II. kapitulua: Musika- eta dantza-eskolek bete beharreko baldintzak, instalazioei, baldintza materialei eta irakaskuntza-eskaintzari dagokienez.

3. 64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolena.
— VIII. kapitulua: egitura, irakaskuntza-araubidea, matrikulazioa eta ziurtagiriak ematea musika- eta dantza-eskoletan.

4. Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren estatutuak.
— I. kapitulua: Xedapen orokorrak.
— II. kapitulua: Eginkizunak eta ahalak.
— III. kapitulua: Antolamendua eta funtzionamendua.

5. Udal Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (AFA).
— Atariko Titulua.
— I. titulua: 1.etik 8. atalera.

6. Udal Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (AFA).
— VI. titulua: Matrikula egitea eta ikasleak onartzea.

7. Musika eta Dantza Eskolaren Hezkuntza Proiektua.
— Nortasun printzipioak.

8. Musika eta Dantza Eskolaren Hezkuntza Proiektua.
— Hezkuntzaren antolaketa.

9. Musika eta Dantza Eskolaren Hezkuntza Proiektua.
— Metodologia eta beste alderdi pedagogiko batzuk.

10. Hezkidetza euskal-hezkuntza sisteman.

11. Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I Plana.
— 5. Planaren egitura.
— 6: Jarduera ardatzak.
— 7: Lan plana eta Berdintasun Batzordea.
— 9: Jarraipena eta adierazleak.

12. Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Plan Estrategikoa 2022/23-2025/26.
— 3: Xedea, ikuspegia eta balioak (XIB) ezartzea.
— 4: 2022/23-2025/26 Plan Estrategikoaren helburuak.

13. Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

acorde a las características del mismo (edad, intereses, niveles, etc.) tanto en la Escuela como fuera de ella en los días de actuaciones.

Cuidar el material a su cargo y hacer cuantas gestiones para posibilitar su uso por profesores y alumnado según los reglamentos de la Escuela.

Participar en Conciertos Pedagógicos para los que sea requerido.

Aceptar los cargos para los que sean elegidos o nombrados, según la normativa del Centro.

Realizar, asimismo, aquellas tareas que se le encomienden, acordes con la cualificación requerida para el acceso y desempeño del puesto, sin perjuicio de las relacionadas anteriormente.

ANEXO 2

TEMARIO ESPECÍFICO

1. Ley Orgánica 2/2006, de Educación.
— Título Preliminar, Capítulo II.
— Título I, Capítulo VI.

2. Decreto 64/2024, de 21 de mayo, de las escuelas de música y danza de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
— Capítulo I: disposiciones de carácter general.
— Capítulo II: requisitos a cumplir por las escuelas de música y danza en cuanto a instalaciones, condiciones materiales y oferta docente.

3. Decreto 64/2024, de 21 de mayo, de las escuelas de música y danza de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
— Capítulo VIII: estructura, régimen docente, matriculación y expedición de certificados en las escuelas de música y de danza.

4. Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de Donostia/San Sebastián.
— Capítulo I: Disposiciones generales.
— Capítulo II: Funciones y potestades.
— Capítulo III: Organización y Funcionamiento.

5. Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) de la Escuela Municipal de Música y Danza.
— Título Preliminar.
— Título 1: secciones 1.ª a 8.ª

6. Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) de la Escuela Municipal de Música y Danza.
— Título VI: De la matrícula y admisión del alumnado.

7. Proyecto Educativo de Centro de la Escuela Municipal de Música y Danza.
— Principios de identidad.

8. Proyecto Educativo de Centro de la Escuela Municipal de Música y Danza.
— Ordenación de la enseñanza.

9. Proyecto Educativo de Centro de la Escuela Municipal de Música y Danza.
— Metodología y otros aspectos pedagógicos.

10. La coeducación en el sistema educativo vasco.

11. I Plan para la igualdad de mujeres y hombres de la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián.
— 5: Estructura del Plan.
— 6: Ejes de actuación.
— 7: Plan de trabajo y Comisión de igualdad.
— 9: Seguimiento e indicadores.

12. Plan Estratégico de la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián 2022/23-2025/26.
— 3: Establecimiento de la Misión, Visión y Valores (MVV).
— 4: Objetivos del Plan Estratégico 2022/23-2025/26.

13. Criterios de uso de las lenguas oficiales en la Escuela Municipal De Música y Danza de Donostia/San Sebastián.

14. Entzumenaren fisiologia: entzumenaren organoa, entzumenaren prozesua.
15. Musikaren teoria. Musikaren idazkera: altuera, iraupena, arauak eta laburdurak.
16. Musikaren teoria. Erritmoa: Konpasa, azentuazio aldaketak, konpasaren aldaera erritmikoak, lau aldi baino gehiagoko konpasak.
17. Harmonia: Tonalitatea, moduak, zifratu amerikarra, akorde triada eta koatriadak, progresio harmonikoak: gradu diatonikoak, bigarren mailako dominanteak.
18. Musika instrumentuak: Sailkapena, oinarrizko ezaugarriak eta idazkera.
19. Musikaren historia: Errenazimendua eta barrokoa. Orokortasunak eta egile eta musikari nabarmenak.
20. Musikaren historia: Klasizismoa, Erromantizismoa. Orokortasunak eta egile eta musikari nabarmenak.
21. Musikaren historia: XX. eta XXI. mendeak. Orokortasunak eta egile eta musikari nabarmenak.
22. Euskal herri musika XX eta XXI. mendeetan.
23. Emakumeak musikaren historian.
24. Garunaren garapena eta garapen fisiko eta motorra nerabezarora arte.
25. Musika ondare historiko-artistiko kultural gisa. Musikak korronte estetikoekin eta gainerako arteekin duen harremana. Irakaslearen erantzukizuna horiek balioesteko, zaintzeko eta egungo belaunaldiei eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko.
26. Metodoak, ikasketa bildumak, ariketak eta bestelako material pedagogikoak. Teknikak ikasteko duten erabilgarritasuna baloratzea. Instrumentuari eta haren didaktikari buruzko bibliografia espezializatua.
27. Instrumentua jotzen hasteko sistema metodologiko garrantzitsuenen deskribapena eta azterketa konparatua. Musika eskola batean errepertorioa hautatzeko irizpide didaktikoak.
28. Instrumentuaren berariazko eskola eta sistema pedagogikoen bilakaera. Eskolen kontzepzio teoriko eta teknikoen azterketa konparatiboa.
29. Talde praktika musika eskoletan. Maila honetako jarduera kolektiboak programatzea: errepertorioa, musika hizkuntzari buruzko kontzeptuak, taldean interpretatzeko teknika, entzumena, inprobisazioa eta beste alderdi batzuk.
30. Instrumentuaren irakaskuntzan eta ikaskuntzan aplikatutako informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Software musikala erabiltzearen eta Interneteko baliabideak hautatzearen garrantzia.
31. Gorputza kontzientziatzeko teknikak: erlaxazio fisikoa eta mentala, kontzentrazioa, jarrera ohiturak, arnasketa, kontrol eta bisualizazio mentala, beldur eszenikoa. Alderdi anatomiko eta fisiomekaniko garrantzitsuenak saxofoiaren teknikarekin lotuta.
32. Baxu elektrikoa eta gitarra elektrikoarekin jotzea instrumentuaren ohiko errepertorioa.
33. Baxu elektrikoaren eta gitarra elektrikoaren aurrekariak eta jatorria. Tresna elektrikoak agertzea. Premia historikoa eta estilistikoa. Instrumentuaren bilakaera.
34. Baxu elektrikoa eta gitarra elektrikoa: Eraikuntza ezaugarrien deskribapena. Mekanika osatzen duten elementuen funtzionamendua. Pastillak. Zirkuitu aktiboak eta pasiboak. Anplifikazioa. Mantentzea eta kontserbatzea. Instrumentua aukeratzeko funtsezko alderdiak.

14. Fisiología del oído: Órgano de la audición, proceso de la audición.
15. Teoría Musical. Notación musical: altura, duración, normas y abreviaturas.
16. Teoría musical. Ritmo: Compás, cambio de acentuación, modificaciones rítmicas en el compás, compases de más de cuatro partes.
17. Armonía: Tonalidad, modos, cifrado americano, acordes triada y cuatriada, progresiones armónicas: grados diatónicos, dominantes secundarios.
18. Instrumentos musicales: Clasificación, características principales y escritura.
19. Historia de la música: Renacimiento y Barroco. Generalidades e intérpretes y compositores/as principales.
20. Historia de la música: Clasicismo y Romanticismo. Generalidades e intérpretes y compositores/as principales.
21. Historia de la música: Siglos XX y XXI. Generalidades e intérpretes y compositores/as principales.
22. Música popular vasca en los siglos XX y XXI.
23. Mujeres en la historia de la música.
24. Desarrollo cerebral, físico y motor hasta la adolescencia.
25. La música como patrimonio histórico-artístico cultural. La relación de la música con las corrientes estéticas y con las demás artes. Responsabilidad de la persona docente en su valoración, preservación y transmisión a las actuales y a las futuras generaciones.
26. Los diferentes métodos, colecciones de estudios, ejercicios y otros materiales pedagógicos. Valoración de su utilidad para el aprendizaje de las distintas técnicas. Bibliografía especializada sobre el instrumento y su didáctica.
27. Descripción y estudio comparado de los sistemas metodológicos más importantes de iniciación al instrumento. Criterios didácticos para la selección del repertorio en una escuela de música.
28. Evolución de las diferentes escuelas y sistemas pedagógicos específicos del instrumento. Estudio comparativo de las concepciones estéticas, teóricas y técnicas de las diferentes escuelas.
29. La práctica de grupo en las escuelas de música. Programación de las actividades colectivas en este nivel: repertorio, conceptos relativos al lenguaje musical, técnica de interpretación en grupo, audición, improvisación y otros aspectos.
30. Las tecnologías de la información y de la comunicación aplicadas a la enseñanza y al aprendizaje del instrumento. Importancia de la utilización del software musical y de la selección de los recursos de Internet.
31. Técnicas de concienciación corporal: Relajación física y mental, concentración, hábitos posturales, respiración, control y visualización mental, miedo escénico.
32. Interpretación bajo eléctrico y guitarra eléctrica del repertorio habitual del instrumento.
33. Antecedentes y origen del bajo eléctrico y la guitarra eléctrica. Aparición de instrumentos eléctricos. Necesidad histórica y estilística. Evolución del instrumento.
34. Bajo eléctrico y guitarra eléctrica: Descripción de sus características constructivas. Funcionamiento de los elementos constitutivos de su mecánica. Pastillas. Circuitos activos y pasivos. Amplificación. Mantenimiento y conservación. Aspectos fundamentales en la elección del instrumento.

35. Baxu elektrikoaren eta gitarra elektrikoaren soinu-ezaugarriak. Hari-instrumentuetan soinua sortzeko printzipio fisikoak. Soinua sortzeko moduaren ondoriozko berezitasunak. Afinazioa. Soinu harmonikoen oinarri teorikoak. Soinuaren anplifikazio elektrikoa. Anplifikazio elektrikoko tresnen eta sistemen arteko interakzioa. Anplifikazio-sistema motak. Soinuaren eta haren barietateen produkzioa. Instrumentu motak. Hari motak. Soinua sortzeko modu konbentzionalak eta ez-konbentzionalak.

36. Baxu elektrikoaren teknika: oinarrizko printzipioak. Beso bakoitzaren atalek baxu elektrikoaren teknikan duten funtzioa. Jotzeko teknikak: pultsazioa, ziaren erabilera, ezkerreko eskuko teknikak eta beste batzuk.

37. Gitarra elektrikoaren teknika: oinarrizko printzipioak. Beso bakoitzaren zatiek gitarra elektrikoaren teknikan duten funtzioa. Jotzeko teknikak: sakatzea, zia erabiltzea, ezkerreko eskuko teknikak. Terminologia anglosaxoia: bending, pull-off (beheranzko ligatua), hammer-on (goranzko ligatua), sweep picking.

38. Blues eta jazzaren errepertorioaren ezaugarriak, baxu elektrikorako eta gitarra elektrikorako. Tradizioa eta haren interprete garrantzitsuenak ezagutzea. Errepertorioa hautatzeko irizpide didaktikoak.

39. Baxu elektrikorako eta gitarra elektrikorako rockaren, poparen eta funkaren errepertorioaren ezaugarriak. Tradizioa eta haren interprete garrantzitsuenak ezagutzea. Errepertorioa hautatzeko irizpide didaktikoak.

40. Baxu elektrikorako eta gitarra elektrikorako euskal musikaren errepertorioaren ezaugarriak. Interprete garrantzitsuenak ezagutzea. Errepertorioa hautatzeko irizpide didaktikoak.

41. Jaza, Musika modernoa eta herri musikako kantu eta konposizioen egitura formalak.

42. Talde klaserako formazio anitzak: Big Band, Comboak eta beste batzuk. Taldearen barruan duen rolak garrantzia. Gitarra elektrikoa laguntzaile gisa. Gitarra elektrikoa bakarlari gisa. Errepertorio didaktikoa.

43. Memoria. Memoria heztea, barneko entzumena eratzeko eta pixkanaka garatzeko oinarri gisa. Zentzumen memoria. Memoria motak. Memoriaren erabileraren faktoreak. Memoria ezinbesteko elementua instrumentuaren ikasketa osatzen duten alderdi guztietan. Memorizazio teknikak.

44. Instrumentuan inprobisatzeko printzipioak: baliabideak, materialak eta prozedurak. Inprobisazio gidatua edo askea. Inprobisazioan lengoaia eta notazio berriak erabiltzea.

45. Bat-bateko irakurketa. Teknikak, estrategiak, analisi aplikatua eta metodoak. Maila bakoitzerako material egokia hautatzeko irizpideak.

46. Gitarra elektrikoaren irakaskuntzaren programazioa irakaskuntza profesionaletan, honen arabera: 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa. Honen bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak.

47. Baxu elektrikoaren irakaskuntzaren programazioa irakaskuntza profesionaletan, honen arabera: 229/2007 Dekretua, abenduaren 11koa. Honen bidez ezartzen da musika-ikasketa profesionalen curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak.

48. 2025-26 ikasturterako Graduko sarbide-proben egitura Musikene Ikastetxe Baimenduan, Musikako Goi Mailako Irakaskuntzetan, Jazz (Baxu elektrikoa) espezialitatean.

Kontuan hartu behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitu arte erreferentziako araudian egiten diren aldaketak.

35. Características sonoras del bajo eléctrico y la guitarra eléctrica. Principios físicos de la producción del sonido en los instrumentos de cuerda. Peculiaridades derivadas del modo de producción del sonido. Afinación. Fundamentos teóricos de los sonidos armónicos. Amplificación eléctrica del sonido. Interacción instrumento-sistemas de amplificación eléctricos. Tipos de sistemas de amplificación. Producción del sonido y sus variedades. Tipos de instrumentos. Tipos de cuerdas. Formas convencionales y no convencionales de producción del sonido.

36. La técnica del bajo eléctrico: principios fundamentales. La función de las distintas partes de cada brazo en la técnica del bajo eléctrico. Técnicas de ejecución: pulsación, uso de la púa, técnicas de mano izquierda y otras.

37. La técnica de la guitarra eléctrica: principios fundamentales. La función de las distintas partes de cada brazo en la técnica de la guitarra eléctrica. Técnicas de ejecución: pulsación, uso de la púa, técnicas de mano izquierda. Terminología anglosajona: bending, Pull-off (ligado descendente), hammer-on (ligado ascendente), sweep picking.

38. Características del repertorio del blues y jazz, para el bajo eléctrico y la guitarra eléctrica. Conocimiento de la tradición y sus intérpretes más importantes. Criterios didácticos de selección de repertorio.

39. Características del repertorio del rock, pop y funk para el bajo eléctrico y la guitarra eléctrica. Conocimiento de la tradición y sus intérpretes más importantes. Criterios didácticos de selección de repertorio.

40. Características del repertorio de música vasca para el bajo eléctrico y la guitarra eléctrica. Conocimiento de sus intérpretes más importantes. Criterios didácticos de selección de repertorio.

41. Estructuras formales de las canciones y composiciones de jazz, música moderna y popular.

42. Variedad de formaciones para la clase de conjunto: Big Band, Combos y otros. Importancia del rol dentro del grupo. La guitarra eléctrica como acompañante. La guitarra eléctrica como solista. Repertorio didáctico.

43. La memoria. La educación de la memoria como base para la formación del oído interno y su desarrollo progresivo. Memoria sensorial. Tipos de memoria. Factores en el uso de la memoria. La memoria como elemento imprescindible en los diferentes aspectos que conforman el estudio del instrumento. Técnicas de memorización.

44. Principios de improvisación en el instrumento: recursos, materiales y procedimientos. La improvisación dirigida o libre. Uso de nuevos lenguajes y notaciones en la improvisación.

45. La lectura a primera vista. Técnicas, estrategias, análisis aplicado y métodos. Criterios para la selección del material adecuado a cada nivel.

46. Programación de Guitarra eléctrica en las enseñanzas profesionales, de acuerdo con el Decreto 229/2007, de 11 de diciembre, por el que se establece el currículo de las enseñanzas profesionales de música y el acceso a dichas enseñanzas.

47. Programación de Bajo eléctrico en las enseñanzas profesionales, de acuerdo con el Decreto 229/2007, de 11 de diciembre, por el que se establece el currículo de las enseñanzas profesionales de música y el acceso a dichas enseñanzas.

48. Estructura de las pruebas de acceso de Grado al curso 2025-26 en Musikene en la especialidad de Jazz (Bajo eléctrico).

Deben tenerse en cuenta las modificaciones que se produzcan en la normativa de referencia hasta la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

EK\CV GAO-I-2025-01930

* Bibliografia gomendatua.

2/2006 Lege Organikoa, hezkuntzari buruzkoa.

64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolena.

Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren estatutuak.

Udal Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (AFA).

Musika eta Dantza Eskolaren Eskolaren Hezkuntza Proiektua (EHP).

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I Plana.

Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Plan Estrategikoa 2022/23-2025/26.

Michels, U. (1982). Atlas de Música 1. Alianza Editorial.

Michels, U. (1992). Atlas de Música 2. Alianza Editorial.

https://www.badok.eus/historia/.

Soler, S. (2017). Historia de las mujeres en la música: aportaciones y dificultades que han frenado su desarrollo. In. Soler, S. (2017). Mujeres y música. obstáculos vencidos y caminos por recorrer (Doktorego Tesia). Universitat Rovira i Virgili. TDX Tesis Doctorals en Xarxa. https://www.tdx.cat/handle/10803/461978.

Herrera, E. (1998). Teoría Musical y Armonía moderna: vol. 1. Antoni Bosch.

Lizaso, I., Acha, J., Reizabal, L. y García, A.J. (2017). Desarrollo biológico y cognitivo en el ciclo vital. Pirámide.

https://www.donostia.eus/ataria/web/musika-eskola/.

Lorenzo, T. (2005). El arreglo: Un puzzle de expresión musical. J.M. Bosch Editor.

Cursá, Dionisio de Pedro (1990). Teoría Completa de la Música (vol. 1). Real Musical.

https://www.euskadi.eus/hezkidetza-euskal-hezkuntza-sisteman/web01-a3hicoed/eu/.

3. ERANSKINA

— 3. ariketako B atala. Egoerak.

Maila eta irakasgaiei buruzko erreferentzia guztiak Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak bere Eskolako Hezkuntza Proiektuan (EHP) definitutako maila eta irakasgaiei dagozkie.

1. Musika Eskolako II. mailan, espezialitatearen programazioa 8 urterekin hasten diren ikasleekin.

2. Espezialitatearen programazioa II. mailan, ezagutzarik gabe hasten diren ikasle helduekin.

3. Musika Eskolako III. mailan, espezialitatearen programazioa.

4. 8 urteko ikasle bat instrumentua ikasten hasten den lehen ikasturteko lehen hiruhilekoko edukien programazioa, helburuak eta sekuentziazioa.

5. Sormenaren eta adierazpen musikal pertsonalaren garapena II. mailan.

6. II. mailan, teknika instrumentala garatzeko helburu eta edukien sekuentziazioa.

7. Euskal kultura-tradizioa sustatzea, kulturartekotasuna sustatzearekin batera espezialitateko klaseetan eta musika-taldeetan.

8. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen tratamendua espezialitateko eskoletan eta musika-taldeetan.

* Bibliografía recomendada.

Ley Orgánica 2/2006, de Educación.

Decreto 64/2024, de 21 de mayo, de las escuelas de música y danza de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de Donostia/San Sebastián.

Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) de la Escuela Municipal de Música y Danza.

Proyecto Educativo de Centro (PEC) de la Escuela Municipal de Música y Danza.

I Plan para la igualdad de mujeres y hombres de la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián.

Plan Estratégico de la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián 2022/23-2025/26.

Michels, U. (1982). Atlas de Música 1. Alianza Editorial.

Michels, U. (1992). Atlas de Música 2. Alianza Editorial.

https://www.badok.eus/historia/.

Soler, S. (2017). Historia de las mujeres en la música: aportaciones y dificultades que han frenado su desarrollo. En. Soler, S. (2017). Mujeres y música. obstáculos vencidos y caminos por recorrer (Tesis Doctoral). Universitat Rovira i Virgili. TDX Tesis Doctorals en Xarxa. https://www.tdx.cat/handle/10803/461978.

Herrera, E. (1998). Teoría Musical y Armonía moderna: vol. 1. Antoni Bosch.

Lizaso, I., Acha, J., Reizabal, L. y García, A.J. (2017). Desarrollo biológico y cognitivo en el ciclo vital. Pirámide.

https://www.donostia.eus/ataria/web/musika-eskola/.

Lorenzo, T. (2005). El arreglo: Un puzzle de expresión musical. J.M. Bosch Editor.

Cursá, Dionisio de Pedro (1990). Teoría Completa de la Música (vol. 1). Real Musical.

https://www.euskadi.eus/coeducacion-en-el-sistema-educativo-vasco-coeducacion/web01-a3hicoed/es/.

ANEXO 3

— 3.er ejercicio apartado B. Situaciones.

Todas las referencias a niveles y asignaturas corresponden a los niveles y asignaturas definidas en las Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián en su Proyecto Educativo de Centro (PEC).

1. Programación de la especialidad en el nivel II de la Escuela de Música, con alumnado que comienza con 8 años.

2. Programación de la especialidad en el nivel II con alumnado adulto que comienza sin conocimientos.

3. Programación de la especialidad en el nivel III de la Escuela de Música.

4. Programación, objetivos y secuenciación de los contenidos del primer trimestre del primer curso en el que una alumna de 8 años comienza el estudio del instrumento.

5. Desarrollo de la creatividad y de la expresión musical personal en el nivel II.

6. Desarrollo de la técnica instrumental en el nivel II: secuenciación de objetivos y contenidos.

7. Promoción de la tradición cultural vasca, compatibilizado con la promoción de la interculturalidad en las clases de la especialidad y de agrupaciones musicales.

8. Tratamiento del alumnado con necesidades educativas especiales en las clases de la especialidad y agrupaciones musicales.

9. Espezialitateko eskoletan eta musika-taldeetan hezkidetza sustatzeko neurriak.

10. Musika Eskolako musika-taldeen aukerak espezialitateko ikasleentzat eta talde horietan matrikulatzea gomendatzeko irizpideak.

11. Kontserbatorio profesionaleko 1. mailara iritsi nahi duen emakumezko ikasle bati laguntzea, 5 urteko ikasketen ondoren. Indartze-ikastaro bat programatzea, Eskolako irakasgaiak hautatzea barne.

12. Goi-mailako ikasketak egin nahi dituen IV. mailako emakumezko ikasle bati laguntzea. Indartze-ikastaro bat programatzea, Eskolako irakasgaiak hautatzea barne.

9. Medidas para fomentar la coeducación en las clases de la especialidad y agrupaciones musicales.

10. Opciones de agrupaciones musicales en la Escuela de Música para alumnado de la especialidad y criterios para la recomendación de matriculación en dichas agrupaciones.

11. Acompañamiento a una alumna que desea acceder a 1.er curso de conservatorio profesional, tras 5 años de estudio. Programación de un curso de refuerzo, incluyendo selección de asignaturas en la Escuela.

12. Acompañamiento a una alumna de nivel IV que desea acceder a estudios superiores. Programación de un curso de refuerzo, incluyendo selección de asignaturas en la Escuela.

EK\CV GAO-I-2025-01930